

Irakaskuntza

Barberak bere dimisio eskakizuna  
galerazi egin zuen atzo

G.A. / BILBO

Egun hauetarako deituta zeuden Gobernu Batzarrearen bilera-asteazkenean data zehatzik gabe atzeratu ondoren, Emilio Barbera errektoreak bapatean bi deialdi egin zituen atzo.

Barberaren bapateko deialdiek galerazi egin zituzten atzo Errektorearen dimisioa eskatzekoak ziren Gobernu Batzarreko hamazazpi kideren asmoak. Gobernu Batzarreko hamazazpi partaidek Emilio Barberaren dimisioa eskatzeko asmoa zuten atzo «EHU mantendu ezinezko egoeran bait dago, botere guztiak errektorearengan biltzen direlako». Ondorioz, asmoak hutsean gelditu ziren ostegunerako deialdiaren berri izan zutenean.

«EHUren egoera ezin okerragoa da, Unibertsitateari bere erakunde kolegiatu garrantzitsuenak ukatu egiten zaizkielako. Zorixarrez egoera honek botere guz-

tiak errektorearengan biltzea ekarri du, horregatik Barberaren dimisioa eskatzen dugu», dio Gobernu Batzarreko kideek atzo publikoki ezagutzera emateko zuten idazkiak.

Ekainaren 27ko Gobernu Batzarrea bilera berezia izango da, eta gai ordenean gai bakarra agertzen da, Euskal Kontuen Autzitegiaren behin-behineko txostena eta EHUK landuriko alegazioen aurkezpena. Uztailaren lekoa, berriz, ohizko bilera izango da.

EHUKo klausuladun kontratu administratiboa sinatu zuten irakasleak, errektoretzara joan ziren atzo beren lan kontratuen kopia eskatzeko. Berrehun irakasle baino gehiagok hiru urtetarako kontratu administratiboa sinatu zuten joan zen irailean, mahai sektorialeko CCOO, ELA eta UGT sindikatuak eta talde errektoralarekin, baina geroztik ez dute lan kontratuaren kopiarik eskuratu.

Bizkaiko osasun pribatuko langileek  
bertan behera utzi dute greba

BILBO

Bizkaiko osasun pribatuko ELA, CCOO eta UGT sindikatuak aurre akordio batera heldu ziren atzo Patronalarekin. LAB sindikatuak, bestalde, aurreakordiotik kanpo gelditzea erabaki zuen.

Joan zen ekainaren 4etik greban izan dira Bizkaiko osasun pribatuko bederatzi zentruetako langileak hitzarmen probintziala eskatzeko. Hiru sindikatu grebaren hemezortzigarren egunean sinatu zuten aurreakordioa bi urtetarako da, hau da aurtun eta datorren urterako.

Aurreakordioaren baldintzak honakoak dira: lehen urterako —aurten—, soldataren % 8ko gorakada.

Sindikatuak orain arte % 9 eskatzen zuten. Kontsumorako Prezio Indizeari (KPI) dagokionez, urte honetarako KPI gehi batekoa izango da eta datorren urtean, aldiz, KPI gehi 1,5.

Urteroko lanorduei dagokionez, sindikatuak hamabost ordu gutxiago izatea eskatzen zuten egun 1.792 ordu betetzen bait dituzte urtean.

Hemezortzi egunetan greban egon diren sindikatuen beste eskakizuntariko bat igande eta jaiegunetan gehigarria kobratzea zen, beraien esanetan, 1.500 pezeta orduko. Aurreakordioaren arabera orduko 1.000 pezeta gehiago irabaziko dituzte uztailaren batetik aurrera. Baja hartuz gero, soldata osoa jasoko dute.

Ikastolek «nazionalista omen den  
gobernuaren jokaera» salatu dute

Negoiazioak Federazioaren bidez egin beharra gogoratu dute

**E**AEko hiru lurraldeetako ikastolak Elgoibarren elkartu ziren herenegun Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntz sailarekin izaniko elkarrizketak aztertzeko. Bilera honetan bederlatzi puntu onartu ziren estrategia bateratua aurrera ateratzeko. Ikastolek salatu egin dute «bere burua nazionalistatzat» duen gobernuaren jokaera».

DONOSTIA

Elkarteko arduradunek atzo Donostiako prentsaurrean azaldu zuten, herenegun batzarrean 90 ikastolatako ordezkariak izan ziren guztira eta proposamena % 98k onetsi zuen. % 2k boto zuria eman zuen eta ez zen ezekorik izan.

Onartutako lehen puntuan ikastolen balorazioa da. Beraien ustez, «penagarria da eskola publikoko sektorerik burokratikoaren oldarkortasunak teorikoki nazionalista den gobernuan gaur egun duen eragina izatea». Puntu honetan ikastolek jorratutako biderei segitu eta irmo eusteko gogoia azaldu dute. Honetarako arduradun, irakasle zein gurasoak kontzientziaturik daude «behar diren pausu guztiak emateko».

Bigarren puntuan erabaki zenez, balorazio txosten hau publikoki ezaguturaziko da. «Ardantzari eskutitz bat bidali zaio puntu guzti horien azalpena emanez, baita ere komunikabide guztiei» esan zuten ordezkariak.

**LIKIDAZIOA:** Ondoren zentru  
**ONARTUTAKOAK** guztiei informa-  
**BETE** zio zehatza emateko beharra azpimarratzen da eta



Ikastolako ordezkariak atzo Donostiako prentsaurrean.

laugarren puntuan 1990eko likidaziorako erizpideak zeintzuk izango diren aipatu. «Garai batean onartu genuen 90eko zoren likidaziorako kriterioa Federazio eta Hezkuntz saileko teknikoek osatzen duten batzordeak egindako estudioari eutsiz zehaztu behar da, administrazioari hau jakin eraziz.

Lan hitzarmenari buruz, negoziaketari ekitea erabaki dute ikastolek, «guk geuk ditugun tresna guztiak erabiliz. Gobernuari zertan gabiltzan jakin eraziko diogu, informazio osoa eskainiz, baina menpekotasunik gabe».

Bost puntu hauek astelehenero batzarrean proposatu ziren baina herenegun bileran ondoko lau puntu gehiago gaineratu zitzaizkion jatorrizko txostenari. Lehena plangintza eta mapa eskolarra bultzatu beharra da «horretarako behar diren baliabide guztiak erabiliz».

**FEDERAZIOAREN BIDEZ NEGOZIATU** Ondoko puntuan Federazio eta Konfederazioaren funtzioak argitzearen komenen-

tzia dago, bi ikuspuntutatik: Batetik, administrazioak eduki behar duen jarrera argituz eta bestetik, ikastola bakoitzak izan behar dituen harrera eta disziplina zehaztuz. Administrazioari «komenioan dagoena» gogorarazi nahiz ikastolei dagozkien puntu guztiak Federazioaren bitartez tratatu behar dituela azpimarratuz.

Ordezkariak atzo azaldu zuten bezala, «ikastola guztiei administrazioarekiko harremanetan eskatzen diren datu eta txostenak ohi den bezala Federazioaren bidez egiteko, baina bakoitzak ekonomikoki dituen konpromezuak hautsi gabe eta serio erantzunez».

Batxilergoa irakasteko arazoei aurre egiteko bilera bat egingo dute datorren astean, «afektatu guztiekin gai honetaz hitzegiteko».

Azkenik, ikastolek eraso guztietatik defendatu beharra adierazi zuten eta horretarako «oso egokitzat» jo zen ahalik eta ikastola gehienetik erantzutea «norberak ere bere etxea defendatzeko aurrerapausuak eman behar dituelako».

Ipar Euskal Herria eta Nafarroa  
Garaia turismoa bultzatu nahian

A.B. / IRUÑA

Ipar Euskal Herri eta Nafarroako Gobernuak ordezkarien arteko turismoari buruzko hitzarmena sinatu zuen atzo Bertzen (Oieregin), bi zonaldeen ezaugarri turistikoak bultzatu eta elkarlanak indartzeko. Akordio honen bidez, egitasmo publiko zein pribatuen topaleku sortu nahi dute bi aldeetako turismo erakundeek, elkarri lotzen dituzten ezaugarriez profitatuz.

Horrela, turismo arloko profesional, enpresari eta erakundearen arteko harremanak bultzatuko dira, eta Ipar Euskal Herria eta Nafarroako turismoaren osagarritasuna indartuko da. Halaber, bi zonaldeko turismo bulegoen arteko loturak ziurtatuko eta elkarrekiko mozkinak bereziki babestuko dira. Bidenabar, turismoa

zabaldu eta laguntzeko orduan, elkarlana areagotuko da hemendik aurrera.

Hitzarmena Jean Castaings Ipar Euskal Herriko Turismo Bulegoaren presidente eta Akitaniako Kontseilariak eta Julian Balduz Nafarroako Turismo kontseilariak izenpetu zuten, eta gai honi buruzko mahaingururekin batera egin zen. Bertan, Henri Lauque Ipar Euskal Herriko Turismo Bulegoaren zuzendariak eta Javier Alforja Nafarroako Turismo zuzendariak hartu zuten parte. Hitzaldiak bi aldean ezaugarri turistikoaren azterketa izan zuen gai nagusia, elkarlanaren aukerak antzeman ahal izateko. Hau ez da, hala ere, bi erakundearen artean egiten den lehen-dabiziko akordioa, iazko abenduaren 9an hezkuntza eta kultur arloan beste bat sinatu zutelako.

**SUSTATU' 91**

GIZARTE-ZERBITZUEN SUZTAPENERAKO SUSTATU' 91 SARIAK

Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak, Gizarte-Ongizaterako Zuzendaritzaren bitartez, "SUSTATU' 91" Gizarte-Zerbitzuen Suztapenerako Euskadi Sarietarako deia egiten du, 1991ko ekainaren 13ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako emandako Aginduari jarraituz. Lehiaketa honen oinarriak Aginduan bertan azaltzen dira, sarien zenbatekoak zein aukeran diren modalitateak hauexek direlarik:

<p><b>KAZETARITZAKO ESPEZIALITATEA</b> Especializatugabeko prentsa modalitateak</p> <p>1. Saria: 1.000.000 pzt. eta Plaka. 2. Saria: 500.000 pzt. 3. Saria: 100.000 pzt.</p> <p>Sari berezia: 250.000 pztako (espezializatutako aldizkarian agertuko artikulua).</p>	<p><b>ARGAZKIGINTZA ESPEZIALITATEA</b> Prentisan argitaratutako argazki modalitateak</p> <p>1. Saria: 500.000 pzt. eta Plaka. 2. Saria: 250.000 pzt. 3. Saria: 125.000 pzt.</p> <p><b>Arte-profesional modalitateak</b></p> <p>1. Saria: 250.000 pzt. eta Plaka. 2. Saria: 125.000 pzt. 3. Saria: 75.000 pzt.</p>	<p><b>INSTITUZIO-LANAREN ESPEZIALITATEA</b> 3.000.000 pzt. eta plaka.</p> <p><b>IKUSUNTZUNEZKO BALIABIDEEN ESPEZIALITATEA</b> <b>Arte-Profesional modalitateak</b></p> <p>1. Saria: 1.000.000 pzt. eta plaka 2. Saria: 500.000 pzt. 3. Saria: 250.000 pzt.</p> <p><b>Hezkuntza edo sorospen esperientzia modalitateak</b></p> <p>1. Saria: 1.000.000 pzt. eta plaka. 2. Saria: 500.000 pzt.</p>
<p><b>IRRATI ESPEZIALITATEA</b></p> <p>1. Saria: 1.000.000 pzt. eta Plaka. 2. Saria: 500.000 pzt. 3. Saria: 100.000 pzt.</p>	<p><b>IKERKETA ESPEZIALITATEA</b></p> <p>1. Saria: 2.000.000 pzt. eta Plaka. 2. Saria: 1.000.000 pzt.</p>	

**EUSKO JAURLARITZA** **GOBIERNO VASCO**  
LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA DPTO. DE TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL